# DROGETEN ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 239. zkia. 2015eko azaroa















# Ume, gazte eta helduak liburu artean Ermuan

# EUSKARAK 365 EGUN

erabiZi

euskaltzaleen topagunea

Euskal Birusa Elkartea

www.365egun.eus

***ARGITARATZAILEA:***
**Euskal Birusa**
**Elkarte Kulturala.**
***HELBIDEA:***
**Erdikokale zeharbidea 2, 1.**
**247 posta–kutxa**
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
**www.euskalbirusa.eus**
***ERREDAKZIO TALDEA:***
**Alazne Aiestaran,**
**Paul Bustindui,**
**Estibalitz González**
**eta Dorleta Vidal.**
***KOORDINAZIOA***
***ETA MAKETAZIOA:***
**Dorleta Vidal.**
***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***
**Alazne Aiestaran.**
***AZALEKO ARGAZKIA:***
**Dorleta Vidal**
***LAGUNTZAILEAK:***
**Juanmi Bravo, Antonio Hernández 'Cuco', Patxi López, Valentin Mugarza.**
***ARGAZKIAK:***
**Amaia Arriaga, Juanmi Bravo, Xabier Ciarsolo, Eskolabarri, Estibalitz González, Valentin Mugarza, Pedro Ramírez, Udal Liburutegia, Antonio Vidal eta Dorleta Vidal.**
***PUBLIZITATEA:***
**943 17 93 50 / 688 63 28 76**
**drogeten@gmail.com**
***INPRIMATEGIA:***
**Gertu Koop. (Oñati).**
***BANAKETA:***
**Ainhoa Garitagoitia, Nora Mateos eta Olatz Vidal.**
***TIRADA:***
**2.425 ale.**
***ISSN:***
**1133–973X.**
***LEGE GORDAILUA:***
**SS–213/1994.**
***Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.***

# Bertoko ugaztunak

...Gure baserritarren ahotik

## Bisoi europarra Visón europeo *Mustela lutreola*

Padurak, errekastoak, ur-putzuak… leku umelenak aukeratzen ditu bizileku legez igerilari eta urpekari trebe honek, ur azpian luzaroan egoteko ahalmena duelarik. Korrikalari eta zuhaitz-eskalatzaile traketsa den arren, harrapagaitza da eta bere gorputzaren txikitasunari esker zirrikitu txikienetan ezkutatzen daki. Goizean goiz eta iluntze aldean ibiltzen da janari bila haragijale hau eta bere elikagai gustukoenak igelak, arrainak, ur-arratoiak eta txori erreka zaleak dira. Bere ile-mataza ilun nabarra, fina eta xamurra gutxi lakoxia, estimazio handikoa da, baina ehizatzea eta saltzea galarazita dago erabat. Zoritxarrez, debekurik zorrotzenek ere agian ez dute saihestuko bere desagerpena gure parajeotatik.



# Hilabete honetan...

MUNDUKO AHOTSAK....4
Victoria Zola (Ukrainia)
ELKARRIZKETA..............5-7
Lur Korta eta Peru Magdalena
MALLABIAN ZER? ........8-9
Valentin Mugarza
ERMUAN ZER? ............10
Euskararen Eguna
26. SAN MARTIN....11-15
Argazkiak, sarituak eta berriak
BOTEPRONTOAN ........16
Josu Garitagoitia 'Mardue'
ESKOLEN TXOKOA ......17
Eskolabarriko berriak
IRITZIA ........................18
Egiten dugu, beraz... bagara
SALEROSKETAK ............19
Saldu, erosi edo agurtu
ANTZINAKOAK............20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak
KALEKO INKESTA .........21
Gabonetako janaria aurretik erosten duzu?
AGENDA ....................22
Abenduko agenda

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

# Victoria Zola

**1999. urtean utzi zuen Victoriak Dnepnopetrovsk hiria, 21 urte zituenean. Argentinara alde egin zuen senarrarekin, etorkizun hobearen bila. Une gazi-gozoak igaro zituzten eta, 8 urte geroago, Ermura etorri zen bikotea, Marina alabatxoarekin batera.**




***- Nolakoa zen zure bizitza Ukrainian?***

Ikaslea nintzen eta haurtzaindegian egiten nuen lan. Ordutik ez dut berriro umeekin lan egin, sukalde-laguntzaile lana besterik ez dut izan.

***- Zer dela-eta joan zineten Argentinara?***

Jende asko joaten delako bertara lan egitera. Oso gogorra egin zitzaidan familia urrun nuelako, baina aldi berean gaztea nintzen eta aitortu behar dut asko dibertitu nintzela.

***- Nola eman zenuten jauzia Ermura?***

Argentinan Ukrainiako hiruzpalau familia ezagutu genituen eta batzuk Ermura etorri ziren. Aurretik, senarra Bartzelonara etorri zen lan bila, baina ez zuen lortu. Sukaldari dabil orain Itziarren.

***- Nola hartu zintuzten Ermuak?***

Ondo, asko lagundu zigun Udalak, Emakumearen Topalekuak, Gizarte Zerbitzuek —Ruth Diezek eta Ane Enzunzak, bereziki—, Gurutze Gorriak eta Ongarai Eskolak (Marina poz-pozik dabil bertan!). Bestalde, Osasun Sistemak ez dauka parekorik mundu osoan.

***- Gaztelaniaz ondo moldatzen zara.***

Bai, hiru urte eman ditut Emakumearen Topalekuan ikasten. Gainera, lagun asko ditut eta asko hitz egiten dut. Argentinan, aldiz, ez nintzen irteten.

***- Orduan hemen gusturago zaude?***

Bai, gainera Ukrainiatik gertuago nago eta gurasoak ikustera joan naiteke. Bi aldiz joan naiz jada eta aurten nire gurasoak etorri dira bisitan, Anton, gure semetxoa ezagutzera. Bere bilobak hazten ez ikusteak pena ematen die; nik ere faltan botatzen ditut gurasoak, baina ez lehen beste. Interneti esker errazagoa da orain harremanetan egotea, eta gainera pertsona helduagoa naiz. Bizitzak astinduak ematen dizkizu eta derrigorrez ikasten duzu aurrera egiten.

***- Zer desberdintasun dago ukrainar, argentinar eta ermuarren artean?***

Ermuarrak ukrainarrak baino irekiagoak eta alaiagoak dira, baina argentinarrak baino estres handiagoa dute. Ohiturei dagokienez, bitxikeria da, baina Ukrainian tea edaten da gehien bat, Argentinan matea eta hemen kafea. Nik kafesnea dut gustuko, paella eta pintxoak!

***- Zerbaitek harritu zintuen?***

Santixauetan denak berdin janzteak eta ardoa botatzeak, elkarte gastronomikoek, eta zaharrek tabernetan kartetan jolasteak.

***- Arbuiorik jasan duzu?***

Ez. Atzerritarra zarenean jendeak begiratzen zaitu, baina ez dizu erasorik egiten. Gainera, jende jatorra baino ez dut ezagutzen, ni ere pertsona positiboa naizelako.

***- Zer egiten duzu denbora librean?***

Inguruko herriak ezagutzera joaten gara. Hemengo hondartzak zoragarriak dira: Lekeitio, Laida, Deba...

***- Euskara ikasteko asmoa duzu?***

Gustatuko litzaidake, baina batzuetan pentsatzen dut: Nola ikasiko dut euskara gaztelania ez badut oraindik menderatzen? Anton eskolan hasten denean animatuko naiz beharbada.

Dorleta Vidal











Lur Korta eta Peru Magdalena Ermuan ditugu hilero. Oiartzuarra da Lur, antzerkilaria, aktore eta ipuin kontalaria; Durangaldekoa Peru, idazle, gidoilari eta diseinatzailea. Eta komunean zer? Ermuan dauden bost irakurketa klubetako dinamizatzaileak direla. 'Bularretik Mintzora' osatzen duten bi taldeak gidatzen ditu Lurrek: 3 eta 5 urte bitarteko umeena eta euren senideena, eta 5 eta 8 urte bitartekoena. Peru, aldiz, hiru taldetako arduraduna da: gaztetxoena (8 eta 12 urte bitartekoak) eta helduen euskarazko eta gaztelaniazko taldeena. Lurrek eta Peruk, Peruk eta Lurrek, laurogei ermuar biltzen dituzte hilero ipuinen eta liburuen inguruan, irakurketa ardatz dutela.



elkarrizketa

## Peru Magdalena, gaztetxo eta helduen irakurketa klubetako dinamizatzailea:

# "Gure saioetan kolektibizatu egiten dugu irakurtzearen plazera"



***Hiru urte daramatza Peruk irakurketa klubetako saioak kudeatzen Ermuan. Hilero liburu bat irakurri behar dute taldekideek, eta hari buruz hitz egiten dute hurrengo saioan.***

***- Zein da helduen irakurketa klubetako helburua?***

Lan intelektuala edo plazer intelektuala. Hori lortzen bada, asebeteta irteten naiz saiotik.

***- Zertan datza saio bat?***

Irakurritako liburuaren inguruan mahai-ingurua edo solasaldia egitean. Alde batetik, liburuaren analisi objektiboa egiten dugu, hau da, ezaugarri teknikoak aztertzen ditugu: lengoaia, estruktura, denbora, narratzailea… Laburpena ere egiten dugu eta zeintzuk gai ukitu diren ikusi. Hortik, analisi subjektibora egiten dugu salto: bakoitzak zer ulertu duen, zer ekarri dion gogora…

***- Puntu honetan nork bere iritzia izango du, ezta?***

Bai, denetarik irteten da eta ezin da aurretik jakin zer gertatuko den. Egia esan, oso polita da, oso estimulantea, oso ariketa zintzoa egiten dugulako.

***- Zaila da solasaldi horiek kudeatzea?***

Taldeak oso heterogeneoak dira (jende heldua, jubilatuak, beharginak, etxeko andreak...), eta batzuetan ez da erraza izaten, bakoitzaren ardurak eta gustuak ezberdinak direlako. Batzuk nahiago dute aztertzea liburuak eman diena eta beste batzuk borroka egin eta liburuan hau eta bestea topatu…

***- Zeren bila datoz klubeko partaideak, zein helburu dute?***

Orokorrean, irakurtzea gustuko duen jendea etortzen da. Irakurtzea, baina, plazer indibiduala da eta hemen konpartitu egiten dugu plazer hori, kolektibizatu. Guztion interpretazioak nahastuta elkar aberastu egiten gara. Behin, emakume bat etorri zen liburu batez gaizki esaka, baina, saioan liburu hura aztertu eta gero, iritzia aldatu zitzaion. Hori lortzea sumuna da! Askotan gertatzen da zerbait modu batera ikusi eta besteen ikuspuntuen eraginez aldatzea. Horrek irakurketa zabalagoa sortzen du.

***- Beste herri batzuetan ere dinamizatzaile zara. Liburu berak lantzen dituzu leku guztietan?***

Batzuk bat datoz leku ezberdinetan, baina gehienak ez, taldeak ezberdinak direlako. Bitxia da, baina liburu bat ikusita, badakit non funtzionatu dezakeen eta non ez.

***- Bestalde, gaztetxoen taldea ere baduzu, 8 eta 12 urte bitartekoena. Zein da zure zeregina kasu horretan?***

Irakurzaletasuna piztea eta umeak liburuetara hurbiltzea era erakargarri batean. Saioaren hasieran, irakurri duten liburuari buruz hitz egiten dute, euren esperientziak kontatzen dituzte eta bukaeran sormen ariketa moduko bat egiten dute, irakurritakoarekin zerikusia duena.

***- Zer eman diezaiokete liburuek gaztetxo bati?***

Ni literaturaren fanatikoa naiz, edo oro har kulturaren ultrafanatikoa, bizitzan aplikatu dezakegun sentsibilitatea ematen digulako, perspektiba: erlazionatzeko, erabakiak hartzeko, ikuspuntu bat izateko, jendarte bat izateko, herri bat izateko, naturarekiko konexioa izateko... Horretan sinesten dut, benetan. Horregatik, nire asmorik gorena izango litzateke gaztetxo hauek ikustea literaturak ematen dien gaitasun hori.

***- Gaztetxoekin edo nagusiekin lan egitea nahiago?***

Oso ezberdina da. Helduekin asebetetze intelektuala edo existentziala handiagoa da, baina gaztetxoekin alde emozionala atera eta sorkuntza suertatzen da. Helduen saioa prestatzeak lan handiagoa ematen du; gazteekin, aldiz, dena da plastikoagoa. Gaztetxoek ez dituzte hitzak neurtzen eta helduekin ematen ez den leherketa artistikoa ematen da. Ez dakit erantzuten, oso orekatuta dago.

## "Helduekin ez bezala, leherketa artistikoa ematen da gaztetxoekin"




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

## Lur Korta, 'Bularretik Mintzora' irakurketa saioetako dinamizatzailea:

# "Amaren tripan daudenetik hurbil daitezke umeak liburuetara"

***Duela 8 urte etorri zen Lur lehen aldiz Ermura eta gaur egun itxaron zerrenda dago berak gidatutako 'Bularretik Mintzora' saioetan. Bertan umeek eta euren gurasoek hartzen dute parte.***

***- Nola antolatzen dituzu saioak?***

Hasieran beti saiatzen naiz umeak erakartzeko zerbait egiten: kontaketa edo aurkezpen potolo bat. Gero beraien gisara egoten dira 10 minututxo, eta azkenik, bukaera on bat ematen saiatzen naiz. Batzuetan hurrengo saiorako zerbait prestatu behar izaten dute.

***- Zein da dinamizatzailearen lana?***

Irakurzaletasuna bultzatzea era dibertigarri eta politean, liburuak aurkeztea, kontatzea, taldeari lanak proposatzea… Umeak eta familiak, klubak irauten duen bitartean, engantxatu eta erakartzea gehien bat.



***- Umeek aho zabalik begiratzen zaituzte ipuina kontatzen diezunean...***

Ermuko familiekin harreman berezia dut, ume asko txikitatik ezagutzen ditudalako eta oso gustura etortzen naiz. Nahiz eta laranbata izan, hemen argi ikusten dut eman eta jasotzen dudala. Ipuinak kontatzean beraiek disfrutatzen dutena, niri bueltan etortzen zait.

***- Zure ustez, zein da adinik egokiena umeak lehen aldiz liburuetara hurbiltzeko?***

Liburu edo ipuin egokiak topatu daitezke adin tarte guztietarako. Amaren tripan daudenetik hurreratu daitezke umeak liburuetara, txiki-txikitatik, gero ipuinetara hurbiltzea da egokiena, horregatik gure egitasmoaren izena 'Bularretik mintzora' da.

***- Umeekin batera, gurasoak daude zure saioetan. Zein da haien zeregina?***

Gurasoek saioez ikasten dute eta, aldi berean, parte hartzen dute era aktiboan: umea gai ez den kasuetan, laguntzen, esaterako.

***- Zer nolako garrantzia du umeek eskuartean liburua izatea noizbehinka?***

Adin horrekin oso garrantzitsua da ipuinen bitartez zenbat gauza landu ditzaketen: irakurzaletasuna, errespetua, beldurrak, jarrera, laguntasuna, eskuzabaltasuna, irudimena...

***- Komeniko litzateke irakurketa klubean landutakoari etxean jarraipena ematea?***

Bai. Izan ere, klubetara etortzen diren gehienek ematen diote jarraipena. Esan nahi dut liburu bat edo zerbait irakurtzen duten momentutik jarraipena ematen ari direla helburuetako batzuei.

Dorleta Vidal

## "Gurasoek era aktiboan hartzen dute parte klubean"











## Valentin Mugarza, argazkilaria afizioz:

# “Argazki zaharrek balio erantsia galtzen dute pertsonen identifikaziorik gabe”

**Betidanik argazkilaritza munduarekin harreman estua izan du mallabitar honek, bai inguruko ekitaldi ugaritako argazkiak ateratzen bai argazki zaharrak bildu eta sailkatzen. 2007. urtetik Drogetenitturriko argazki zaharrak bildu eta dokumentatze prozesua burutzen du.**

***- Noiz murgildu zinen argazkilaritzaren munduan?***

Betidanik atera izan ditut argazkiak. Hasieran diapositibekin aritzen nintzen. Geroago Reflex kamerarekin paperean argitaratzen nituen. Azkenean digitalarekin ibiltzen naiz. Digitala aldaketa izan zen orain dela urte batzuk, baina dagoeneko ohituta nago.

***- Eta argazki zaharren dokumentazioarekin?***

Beste aldizkari batzuetan argazki zaharren txokoa zegoela ikusi nuen eta *Drogetenitturri* aldizkarikoei proposatu nien ideia 2007an. Baiezkoa eman zidaten eta ordutik ni arduratzen naiz Mallabiko argazkiak bildu eta sailkatzeaz, nahiz eta Igone Amestik eta beste batzuek ere batu izan dituzten.

***- Nola lortzen dira antzinako argazkiak?***

Jendearekin kontaktatu behar da hasieran. Batzuek ematen dizkizute. Beste batzuekin, nahiz eta eskatu, pentsatzen dute beraien argazkiak ez direla hain onak, nahiz eta askotan gerora oso interesgarriak diren. Gainera lortu beharra dago pixka bat interes orokorrekoak izan daitezen. Normalean talde argazkiak izaten dira, nahiz eta noizbehinka jarri izan ditugun pertsona bakarra ageri direnak ere. Bilatzen dudana gehienbat talde argazkia da, ahal izanez gero familia ezberdineko jendea agertzen den horietakoa, koadrila giroan esaterako.

***- Zertan datza antzinako argazkiaren dokumentazioaren balioa?***

Argazki asko ditut datu gabe. Hau da, bertan agertzen diren pertsonen identifikazio barik. Niretzat argazki baten balioa jakiteko datu funtsezkoak dira argazki bera noiz atera zen, nor agertzen den eta zer historia daukan. Aldiz, jende asko ageri diren argazkiak baina bertako pertsonen identifikaziorik gabekoek balio erantsi hori galtzen dute.

***- Zein da dokumentazio lan horren prozesua?***

Argazkia lortzean eskaneatu eta fitxa bat egiten diet. Folio batean inprimatzen dut argazki horren fitxa eta originalarekin batera jabeari bueltatzen diot. Ondoren honek dakizkien datu guztiak betetzen ditu gerora jende gehiagori fitxa pasatu eta galdetzeko ahalik eta informazio gehien erantsi ahal izateko argazkiari.

***- Azken hamarkadan argazkiak inprimatu eta paperera pasatu beharrean, gailu digitaletan (hau da, inprimatu gabe) gordetzeko joera dauka jendeak, teknologi berrien eraginez. Zure ustez, mundu digitalera emandako jauziak onurak ala galerak ekarri dizkio argazkilaritzari?***

Niri pertsonalki paperera pasatzea gustatzen zait, bai gordetzeko bai bistaratzeko egokiagoa ikusten dudalako papera. Azkenean digitalak argazki bera galtzearen arriskua dauka. Nik neuk argazkiaren bi kopia egiten ditut beti bi memoria txartel ezberdinetan. Horrela bat etxean gordetzen dut eta bestea lanera eramateko aukera daukat. Egia esan, mundu digitalarekin argazki gehiago ateratzeko aukera dago, baina beti dauka gordetzearen arazo hori, ordenagailu edo bestelako tresna batek edozein momentutan ezabatu ahal dizkigu.



Quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]
Goienkale, 9 • 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com



***- Gaur egun teknologia berrien eraginez pertsona orok mugikorrean argazkiak egiteko kamera izateari zer deritzozu?***

Batetik, lehen argazkirik ateratzeko kamera ez zeukan jendeak gaur egun edozein momentutan atera dezake argazki bat. Bestalde, betidanik kamerarekin ibili den jendeak orain ere argazki kamera erabiltzeko joera dauka nahiz eta mugikorrekin ere argazki onak lortzen diren.

***- Inguruko ekitaldi berezietako argazkiak ateratzen ere aritzen zara. Zeintzuk dira argazkilaritzan aritzeko zure momenturik gogokoenak?***

Afizio modura ere asko gustatzen zait argazkiak ateratzea. Orokorrean edozein ekitaldi dut gustuko, baina gehienbat momentu berezietan ateratzen ditudan argazkiak. Gabonetakoak asko gustatzen zaizkit eta nire familiakoei egindakoak are gehiago. Data konkretuak ere oso gustuko ditut, adibidez seme-alaben urtebetetze egunetan bertan ateratzen ditudanak. Gustukoa dut ere familiako jendea pertsonaia ospetsu batekin ateratzea, esaterako pilotari edo bertsolari ezagun batekin egindakoak.

***- Ze aholku emango zenieke argazki zaharren mundua maite duten pertsonei?***

Edonori aukera zabaltzen diot nahi duenean bere argazki zaharrak niri bidaltzeko gerora dokumentatu eta fitxa bete ahal izateko bertan ageri diren pertsonekin. Bidal itzazue beldur barik zuen argazki zaharrak!

Paul Bustindui

## ZAPATUERO MALLABIKO UDAL LUDOTEKA

Azaroaren 28an jarriko da martxan ZAPATUero Kontzejuzarrean. 5 eta 11 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzendutako aisialdi-eskaintza da. Herriko gazteek, hileko azken larunbatetan, eskaintza hezitzaileez gozatzea da helburua. Bertan burutuko diren ekintzen artean jolas kooperatiboak, tailerrak, txangoak, eskulanak, urjolasak, dantzak, ginkanak, irteerak, zinea, herri kirolak eta bizikleta-ibilaldiak egongo dira. Izena eman ahal izango da Kultur Etxean azaroaren 16tik 26ra bitartean.

## BERBALAGUNEN BIGARREN EDIZIOA

Bigarren urtez jarraian, Mallabian Berbalagun egitasmoa martxan jarri da. *"Helburua herritar orori euskaraz bizitzeko eta mintzatzeko aukera eskaintzea da"*, diote. Martitzenetan, 10:15etik 11:15era, liburutegian batuko dira. Barikuetan, 18:30etik 19:30era, Jubiletxe ondoan elkartzea da asmoa, eta hitzordu horretara umeekin ere joan daiteke. Talde gehiago sortzeko aukera dagoen arren, aurtengo edizioan taldeak finkoak izango dira. Eguna zehazteko badago ere, gurasoentzako Gurasolagun taldea ere elkartuko da, eskolan, astean behin, 16:30etik 17:30era. Izena ematea doakoa da, 639 414 205 telefonora deituz edo Kultur Etxean.

## MALLABIA KANTUAN ETA TELEBISTAN

Abenduaren 12an Mendibil abesbatzak, Santo Domingon ospatuko den Gabonetako kantuen lehiaketan hartuko du parte. Arratsaldeko 19:00etan, Errioxako Santo Domingoko Abenida aretoan izango da ekitaldia. Abenduaren 19an, Amama Inaxiren ipuina antzeztuko dute Lagun Artean, Jasokunde eta Mendibil abesbatzek eta Gazte Alai dantza taldeak. Urtero legez, umeek Olentzerori gutuna emateko aukera eukiko dute. Iluntzeko 19:00etan egingo da frontoian. Bestalde, *Herri txiki infernu handi* EITBren saiorako hainbat herritar grabatu dituzte eta abenduaren 3an, iluntzean, jendearen aurrekoa grabatuko da frontoian. 15 egunera-edo emititzekotan dira.















# Hainbat ekitaldi burutuko dira Ermuan Euskararen Egunean

**Urtero legez, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da abenduaren 3an, osteguna, eta hitzaldi-kontzertu, gala eta txokolate-jana egingo dira Ermuan besteak beste. Aipatzekoak dira, gainera, Euskal Birusak, Antxitxiketanek eta AEK-k antolatu duten kriseiluen aireratzea eta Gazte Asanbladaren euskal karaokea.**



Eusko Ikaskuntzak ezarri omen zuen abenduaren 3a euskararen nazioarteko egun gisara 1949. urtean. Ia 50 urte beranduago, 1995ean, Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak bat eginik, Euskararen Nazioarteko Eguna instituzionalizatu zuten. Ordutik, euskararen erabilera eta euskara bera sustatzeko asmoz, hainbat elkarte, erakunde publiko eta herritarrek milaka ekitaldi antolatu dituzte egun horretan, Euskal Herriko bazter guztietan, euskara bultzatu eta omentzeko.

Ermuan ere hainbat jarduera antolatzen dira urtero egun honetan, eta herriko elkarte ezberdinek eta Udalak prest dute dagoeneko aurtengo egitaraua.

12:00etan Mikel Markezek eta Eñaut Elorrietak multimedia formatuko hitzaldi-emanaldia egingo dute Ermua Antzokian, Udalak antolatuta: *Baga, Biga, Higa: euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena*. Bertan, 60. hamarkadaren aurreko garaietatik hasi eta gaur egunera arteko musika historiari begirada egiten diote bi artistek, hitzez eta kantuz. Sarrera doan izango da.

Udalaren eskutik ere, gala egingo dute herriko ikastetxeetako ikasleek 14:30ean Ermua Antzokian. Jarraian, XXII. Juanita Ibaibarriaga literatur eta erreportaje lehiaketaren sari-banaketa burutuko da.

16:30ean, Antxitxiketan Begirale Taldeak antolatutako jolasez gozatu ahal izango da plazan. Eta 18:00etan txokolate-jana eskainiko da plazan ere, Euskal Birusak, AEK-k eta Antxitxiketanek bultzatuta.

19:00etan, 100 kriseilu aireratuko dira plazan, aipatutako hiru elkarte horiek antolatuta. Kriseiluak euro batean salduko dira eta erosten duenak aukera izango du berau piztu eta aireratzeko.

### Afari musikatua

Honez gain, Udalak adierazpen instituzionala lantzen dihardu. Euskaldun berriak errekonozitu eta omentzea izango litzateke adierazpen honen mamia, baina oraindik zehaztu barik dago.

Gazte Asanbladako kideek, bestalde, pintxo-poteoari ekingo diote 19:30ean Patxi plazan, eta nahi duen orok bat egin ahal izango du eurekin. Jarraian, afari autogestionatua burutuko dute Izelaieta kaleko ermitan. Herritar guztiei egiten die gonbitea Gazte Asanbladak, ondo pasatuko dutela aginduta. Izan ere, euskal kantuekin eta karaokearekin girotuko da afalondoa. Ekitaldia 23:30ak aldera bukatuko da, hurrengo egunean ikasi edo lan egiten behar dutenek atseden har dezaten.

Dorleta Vidal













# 26. SAN MARTIN AZOKA




## ESKERRIK ASKO EUSKAL BIRUSEKO BAZKIDEEI, AHAZTEN ZAIGUN BATEN BATI ETA OROKORREAN ERMUKO HERRIARI!

**Talogintza:** Mari Paz Araiztegi/ Juanita Aspiazu/ Maritxu Etxebarria/ Lurdes Arrizabalaga/ Mari Nieves Arregi/ Aner González/ Mari Karmen Urkidi/ Maitasun Idigoras/ Marijose Goiogana/ Maddi Goikoetxea/ Miren Astarloa/ Miren Bego Ugena/ Lutxi Alegria/ Maite Areitioaurtena/ Maite Alzola/ Irune Aranberria/ Maite Yarza/ Idurre Zuazua/ Odile Guirado/ Andrea Diez/ Libe Elizondo/ Naroa Mateos/ Haizea Manso/ Nahiara Gallastegi/ Josune Bustos/ Goizane Iglesias/ Naroa Beitia/ Olatz Mugarza/ Maria Ormaetxea/ Leire Elustondo/ Iratxe Arrizabalaga/ Ainhoa Piñeiro/ Natalia Arrizabalaga/ Amaia Arginzoniz/ Natalia Arrizabalaga/ Malen Eizagirre/ Naiara Mateo/ Lidia Jimenez/ Olatz Santos/ Ainhoa Ganuza/ June Madariaga/ Lurdes Perosanz/ Jabi Gorritxategi/ Olatz Vidal/ Arantza Cañamares/ Josu Araiztegi/ Ainhoa Caceres/ Amaia Cano. **Muntaia/desmuntaia:** Ander Yarza/ Juanjo Solozabal/ Josu Garitagoitia/ Endika Fernández/ Alicia Lejardi/ Fernando Aranberri/ Jose Carlos Ibaibarriaga/ Aitor Garcia/ Aitor Arriaga/ Ainara Riveras/ Gus Blanco/ Haritz Aranburu/ Irati Yarza/ Maitane Mugerza/ Paule Gorritxategi/ Amaia Berrizbeitia/ Libe Solozabal/ Alazne López/ Beñat Redondo/ Iker Aranda/ Beñat González/ Nahikari Benito/ Iraide Uriarte/ Maite Hormaetxea/ Laura Agudiña. **Ticketak:** Yolanda Unamuno/ Idoia Narbaiza/ Jaione Madariaga/ Edurne Madariaga/ Roberto Bilbao/ Marga Pérez/ Juantxo Diez/ Pello Diez/ Ane Izagirre/ Paule Gorritxategi/ Danel Gorritxategi. **Saiheskia:** Adei Fernandez/ Alex Idigoras/ Iñaki Bildosola/ Aroia Lejardi/ Oier Araiztegi/ Txomin Espilla/ Aintzane Plaza/ Jokin Txapartegi/ Irune Yarza/ Oier Egaña/ Egoitz Gerrikabeitia/ Elena Anton/ Asier Arellano/ Gorka Alzaa/ Juan Ramón Areitioaurtena/ Mariano Casado/ Manolo González/ José Antonio Lejardi. **Txikurixak:** José Antonio Martínez Carbajo/ Arantxi Perosanz/ Alberto Belar/ Julen Berriozabal/ Antxon Ziarsolo/ Germán Pérez/ Miguel Fernández/ Andoni Esmeralda/ Cándido Pascual/ Jabi Gorritxategi/ David Elejalde/ Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritxategi/ Xabi Iturriagagoitia/ Ander Idigoras/ Txotxi Iturriagagoitia/ Edu Izarra/ Jon Unanue/ Iratxe Odriozola/ Beñat Redondo/ Haritz Aranburu/ Libe Solozabal/ Maitane Mugerza/ Libe Massie/ Olatz Massie/ Alazne López/ Aritz Jayo/ Aitzol Lejardi/ Iker Aranda/ Ane Nogales/ Amaia Orbe/ Maialen Inclán/ Rosa Bañuelos/ Begoña Fernández/ Iñaki Delgado/ Elias Uriarte/ Begoña Infante. **Buruko zapiak:** Mari Karmen Urkidi/ Maite Areitioaurtena. **Dolarea:** Javier Ugalde/ Jose Antonio Unanue/ Juan Luis Araiztegi/ Andoni Areitioaurtena/ Mikel Txapartegi/ Jose Felix Arrizabalaga/ Iratxe Arrizabalaga/ Jagoba Errekondo/ Zeraingo Udala. **Aurreko/ondorengo egunetan:** Juan Antonio Izagirre/ Izagirre sendia/ Lucia Aldalur/ Mari Feli Manzisidor/ Felitxo Araiztegi/ Rober González/ Aitor Garcia/ Fermin Urrengoetxea/ Cesar Larrea/ Aitzol Lejardi/ Eskilarapeko/ Capelo. **Udalak/erakundeak:** Ermuko Udala/ Mallabiko Udala/ Kutxabank/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. **Epaimahaia:** Beatriz Ugena/ Beatriz Gamiz/ Ainhoa Cid/ Lorea Perosanz/ Laura Cruz/ Sole Cimarro. **Errifak:** Amaia Urkizu/ Anboto/ Baúl de Natalia/ Beta/ Capero's/ Dakota/ Déjate Querer/ Egolek/ Gauzak/ Ertz/ Gauzak/ Hanigan's/ Herga/ Infreñu/ Irale/ Kaltxango AEK/ Karikato/ Lurpe/ Mayte/ Miguel/ Moloko/ Outomuro/ Pata Negra/ Pro/ Sagardui/ Sagarra/ Secretos/ Sehiga/ Sirimiri/ Solozabal/ Sorgin/ Titanic/ Torrekua/ Todo a 100 Idoia/ Txalaparta/ Txantxiku/ Urreta/ Xagua/ Yomy/ Zutabe/ Montse González/ Ainhoa Cid/ Martin Espeso/ Olatz Espeso/ Ander Gorrotxategi/ Miren Gorrotxategi/ Unax Bengoetxea/ Iñigo Gaston/ Manex Prieto/ Aimar Galdos. **Erakusleiho lehiaketa:** Ocon Argazkidenda/ Senen Bitxidenda/ Anboto eta Urreta Burdindegiak/ Abeletxe Egoitza/ Arrieta Elektrogailudenda/ Egolek Elektrizitatedenda/ Gorritxategi eta Solozabal Estankoak/ Descubre-te Kafedenda/ Txutxerias eta Arlekin Gozodendak/ Miguel eta Danotz Harategiak/ Dotek Igeltseritza/ Marfil eta Look Ileapaindegiak/ Angela, Cocoliso, Garot@s, Koopera Store, Nane, Vintage eta Quetzal Jantzidendak / Caprichos eta Gauzak Kinkiladendak/ Etxedrems Koltxoidenda/ Mariasun Loradenda/ Procolor Margodenda/ Alboka Musika Eskola/ Cande Oihaldenda/ Eder, Eva, Pablo eta Zapatxiki Oinetakodendak/ Arriaundi Okindegia/ Artarrai Oparidenda/ Itze Optika/ Sagardui Poltsadenda/ Hannigan's eta Infreñu Tabernak/ Mayte Urdaitegia. **Erakusketa:** Ana Belar/ Senen Bravo/ Luis Mari Cañamares/ Merche Aguilar/ Hector Izagirre/ Juantxo Diez/ Nerea Alvarez/ Manu Arnal/ Iosu Arnal/ Marisabel Garitagoitia/ Piedi Cortazar Carlos Ganuza/ Maribel Lopez/ Rafa Corpas/ Marijose Goiogana/ Eusebio Goiogana/ Iñaki Goiogana/ Perdi Goiogana/ Fermin Urrengoetxea/ Amparo Barrutia/ Mikel Areitioaurtena/ Unai Rodríguez/ Julio Rodríguez/ Mari Carmen Mugika/ José Moreno/ Bernardo Casado/ Jesus Portugal/ José Rubio Tano/ Gregorio Txurruka/ Alberto González/ Gaizka Zamakola/ Fernando Aranberri/ Beatriz Robledo/ Ermuko Udala/ Eskilarapeko. **Bestelakoak:** Jon Larrañaga/ Alain Landarroitajauregi/ Xabier Ciarsolo/ Iñigo Pro/ Berria Egunkaria/ Anboto Burdindegia/ Anittu-goiko baserria/ Higinia Solozabal/ Alberto González/ Eztakua-goiko baserria/ Angel Uriarte/ Aitzol Uriarte/ Capelo/ Bingen Aranberria. **Taldeak:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Kaltxango AEK Euskaltegia/ Antxitxiketan Aisialdi Taldea/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea/ Merkatu Plaza/ Eskolabarri/ Txalaparta Elkartea. **Etxekoak:** Joseinas Larrañaga/ Nagore Espilla/ Rosa Jaussi/ Gaizka Areitioaurtena/ Marines Txurruka/ Asier Ibaibarriaga/ Manuel Moreno/ Nerea Berriozabal/ Eli Txurruka/ Tere Uriarte/ Estibalitz González/ Alazne Aiestaran/ Ihart Redondo/ Eider Gisasola/ Unai Rodríguez/ Piedi Eizagirre/ Dorleta Vidal/ Igone Amesti/ Amaia Arriaga

# san martin azoka • txerria • erromeria •

san martin azoka • talogileak • postuak • abereak



DESCUBRE-TÉ
Teak, kafeak, txokolateak, eztia... eta baxera bereziak!!
Probaleku 4 Bis · Ermua, Bizkaia
943 03 15 81 · descubretenew@hotmail.es
www.teteriadescubre-te.com

Sagarra
Gastro-Pub
Probaleku 4 · Ermua · 943 946 810

# dolarea • umeentzako jolasak • dantzariak

abere erakusketa • jantzi lehiaketa • artisauak •
















## SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Aurtengo epaimahaia honako hauek osatu dute: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobide, Idiazabal gaztako teknikaria den Bittor Rodríguez, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorika, Bea Ugena herriko ordezkari bezala, Ermuko Udaleko ordezkari bezala Beatriz Gámez eta Asier Ibaibarriaga Euskal Birusaren izenean.

**FRUTA ETA ORTUARIAK**

1. saria: Maria Pilar Mallabia, Agarre baserria (Mallabia).
2. saria: Mila Amillategi, Barrenetxe baserria (Mallabia).

**GAZTA**

1. saria: Patxi Baskaran, Santa Marina baserria (Markina).
2. saria: Igor Txurruka, Barroeta Torre baserria (Markina).

**OGIA**

Luis Mari Osa, Mañe baserria (Mallabia).

**EZTIA**

Milalore eztia: Igor Merino (Barakaldo).

**SAGARDOA**

Andoni Ojanguren (Lezama).

**TXAKOLINA**

Andoni Ojanguren (Lezama).

**AIPAMEN BEREZIA**

Txomin Arregi, Mibe (Markina).










## TXERRIAREN ERRIFAREN ZENBAKIAK

1. saria: Txerria edo 400 euro: 3926
**Oraindik ez da agertu. Begiratu zure errifa!!**
Ordezkoa: 4373.
2. saria: Landetxe batean asteburu pasa: 1725.
Irabazleak: Iñaki, Maite Sarai, Oscar, Itxasne eta Luis.



## ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

1. saria: Mayte urdaitegia. Epaimahaiak baloratu du erakusleihoa dendaren parte egiten jakin dutela, kolore aldetik konposizio harmonikoa lortuz, detaile zainduekin, alaia eta erakargarria.







2. saria: Solozabal estankoa. Epaimahaiak baloratu du erakusleihoak duen argitasuna, konposizioak lortzen duen oreka eta koloreek transmititzen duten harmonia.

## BASERRITAR JANTZIEN LEHIAKETA

Neska: Ainhoa Delgado.
Mutila: Alex Bouzo.









Zure publizitatea:
**Drogetenitturri aldizkarian**
943 179350 / 688 632876
drogeten@gmail.com





## BEA UGENA IZAN DA HERRIKO ORDEZKARIA AZOKAKO EPAIMAHAIAN



Euskal Biruseko gonbidapenak ezustean harrapatu zuen Bea Ugena ermuarra. Zalantzak zalantza, baietza eman eta epaile lana egiteko aukera izan zuen San Martin egunean, *"azkenean egin beharrekoa uste baino errazagoa zen"*.

***- Zertan eman zenuen azoka eguneko goiza?***

Hasteko bisita gidatua egin genuen azokako gune guztiak ikusteko eta, horrekin batera, saria irabazi zezaketen baserritarren postuak ikusi: nola zeuden apainduta, zeintzuk produktu zituzten, kalitatea, barietatea…

***- Gero oholtzan bildu zineten epaimahaikideak…***

Bai, bertan ogia, txakolina, sagardoa, eztia eta gazta dastatu genituen. Idiazabal gazta eta ezti dastaketan aditu ziren bi lagunek azaldu ziguten zer hartu behar zen kontuan produktu horiek dastatzerakoan. Eztiaren kasuan, esaterako, azukrea neurtzeko aparatua zeukan adituak. Ogia, txakolina eta sagardoaren kasuan, aldiz, gustuak sartzen dira jokoan batez ere. Gauza berriak ikasteko aukera izan nuen.

***- Nola baloratuko zenuke esperientzia?***

Polita izan da. Gainera, horrek lanak egin eta gero, azokaz disfrutatzeko aukera izan genuen. Hasieran horren beldur nintzen-eta, ea goiz osoa emango nuen epaimahaian…

## BOST LAGUNEK JASO DUTE TXERRI-PORRAREN SARIA

264 postura egin ziren txerriaren pisua asmatzeko eta guztiek egin zuten kale: Espe txerriak 322,750 kiloko pisua zuen. Gehien hurreratu zirenek jaso zuten saria: Ander Goikoetxeak, Arantza Alonsok, Iosu Bayónek, Alazne Lópezek eta Alex Urrak.

## 130 LAGUN BILDU ZIREN EUSKAL BIRUSEKO BABA-JANEAN



San Martin azoka bukatu eta gero, Euskal Birusak antolatutako baba-jana burutu zen Merkatu Plazan. Goizean egin ziren babak plazan, astiro-astiro, eta 130 lagun baino gehiago bildu zen gero haiek dastatzera: baba goxoak, odoloste eta txorixoarekin. Kafearekin batera, kontzertua eskaini zuen Sirimiri Bandek bazkalondoan.

## AEKKO OTZARAREN ZENBAKIA

AEK Euskaltegiak San Martin azokan zozketatzen duen otzarak ez dauka jaberik momentuz. 0034 zenbakia izan da saritua eta 1409 da ordezkoa.

## GAZTAÑERREK AURREA HARTU ZION SAN MARTIN AZOKARI



Aspaldiko partez, San Martin azoka baino lehenago ospatu zen Gaztañerre (azaroaren 9an). Kaltxango AEK Euskaltegiak eta Berbalagunek antolatutako ekitaldi hori Merkatu Plazan burutu da aurten —Erretena elkartean egin izan da orain arte—, afalondoan dantza egin ahal izateko. 40 lagun inguruk hartu zuten parte eta ez zen girorik falta antolatzaileen esanetan. Berbalagunek, gainera, ikasturte berriari ekin dio jada, eta hilaren 25ean Gurasolagun programari ekingo dio plazan 17:00etan. Aurten Eskolabarri, Anaitasuna eta Ongarai eskoletako gurasoak elkartu egingo dira talde bakarra osatzeko. Egitasmo honen helburua da euskara praktikatzeaz gain, praktikatze horrek transmisio linguistikoan (guraso-ume) eragin positiboa izan dezan. Izena emateko epea itxita egon arren, interesa duen guraso oro ager liteke plazan egun horretan, bertan izena emateko aukera egongo baita.









# JOSU GARITAGOITIA

***- Mallebittarra edo ermuarra?***
Ermuarrentzako mallebittarra eta mallebittarrentzako ermuarra. Ni baiña mallebittar sentitzen non.

***- Zer ikasi huan?***
Ba, 18 urtera arte Fray Soron Nekazaritza ikasi eta gero aittan testigue hartu najunan. Banekixenan nik ofizixue zein zan, etxien beti ikusi najunaneta. Aitte kantsaute euala eta nik nahi baneban segitzeko eta gaur arte.

***- Gustoko biherra dok?***
Bai, ze kamiñue beti gustau izan jatan eta Euskal Herrixe be bai eta Euskal Herrixen ibiltzen non kamiñuen. Etxera bazkaltzera eta lotara etortzie gauza haundixe don!

***- Ogibidez iketz saltzaillie, ez ikazkiñe. Badakik iketza eitten?***
Etxunat sekulo ein, baiña bajakixanat prozesue zelan dan gitxi gora behera. Txondorra-eta eitten danien, batera eta bestera juten non.

***- Nundik jiratzen dok iketza?***
Ba oin momentuen arteiketza Extremaduratik, egur klase batzuk Argentinatik eta Cubatik be asko, marabú landariana. Enbasauta aillegatzen jakun guri eta batzuk ondiñok lehenako erara, esku hutsien eindde. Euskal Herrixan iketz ona gustatzen jakun, prasa onekue.



**Mallebittarra dan arren, 19 urte daroiez Ermuen. 47 urte deukez, Itziar zumaiarraz dago ezkondute eta Libe eta Irati bikixen aita da Josu Garitagoitia 'Mardue'.**
**Bera baino zaharrauek diren bi arreba dittu eta iketz saltzaillie da.**

***- Ze bezero mota deukek?***
Erretegixek, sagardotegixek, txokuek, fundiziño banaka batzuk eta partikularrak asko, gasoliñera eta pentzu almazenen bittartez saltzen diranak.

***- Olentzerokin traturik bai?***
Bai, tratu haundixe jakanat. Ondo konpontzen gaittun bixok! Haren sobrante danak neuk hartzen jutzenaset eta neuk partidu gero.

***- Txiste zalie heu. Lehen baiño txiste gitxiago kontatzen ete dan…***
Bai, nik gero eta txiste gitxiao jasotzen junat eta kontau be, gitxiao jasotzeran ba...

***- Eta zergaittik ete dok ba: umorie galdu juagu, txistiok kontatzeko lagunartie…?***
Ba etxakixenat: mille txiste daonaz eta lehen zatixe gitxiao, baiña haretxek erabiltzen gendunazen. Oin danak ordenadorietan edo telefonuetan jakanauz, baiña mihiñan puntan lehenakuen hurrik bez! Txistiek be tamaiñuen kontau bihar izeten dittun, parekue gogaittu barik.

***- Kaleko edo baserriko bizimodue, zein nahixao?***
Banan-banan, bixek! Nik zelan bixen aukerie deuketen, uste junat hoixe dala tamaiñurik onena: kalien nahi danien, kalien eta baserrixe, hurran eukittie. Kale hutse tristie don eta gure moduko erdi baserrittarrentzat, bixek eukitzie ondo!

***- Egun zoriontsu bat, Josu?***
Akabo ba, ointxe topekadie! Etxakanat holako egun bat, egun zoriontsu asko euki jittunat-eta. Neskatuen jaixotegune, haxe bat.

***- Asteburupasa berezi baterako, nora juango hitzuan?***
Neure gustoko jentiakin, edonora.

***- Biziorik?***
Txarra, tabakue eta bizio ona, famelixiakin eta lagunekin egotie.

***- Musikie, zinie, antzerkixe?***
Musikie, edozein motatakue.

***- Sukaldien ondo?***
Bai, moldatzen non, goseik pasau eziñeko bestien bai behintzet!

***- Ze albiste nahiko leukek irakorri?***
Gerra eza.

***- Ze falta jakok Ermuari?***
Euskerie gehixao erabilttie eta mallebittarrak!

Estibalitz González

LURPE
ERMUA
Drogetenitturri, 239 zkia.

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

# Gora San Martin!



Eskolabarrik urtero bezala, joan den azaroaren 14an, San Martin azokan parte hartu zuen. Izan ere, hiru aste lehenago "San Martin" proiektua martxan ipintzen dugu eskola osoan. Hilabete gogorra izan arren, batez ere aurreko astea, larunbaterako dena prest laga behar delako, gogoz eta ilusioz beteta aritzen gara hezkuntza komunitateko kide guztiak auzolanean. Guztion lana eta esfortzua batzen da ekintza aurrera eraman ahal izateko: irakasleria, ez dozenteak, familiak, ikasleria... Nahiz eta eguna urduri samar hasi, izugarri disfrutatu genuen eskolak antolatutako ekintza guztietan: Lobianoko musika tresnen erakusketan, eskulan tailerretan, eta noski, 5. eta 6. mailakoek, guztion laguntzaz, ipinitako postuan. Baita azokako beste guneetan ere. Eskerrik asko guztioi zuen laguntzagatik eta Euskal Birusa Elkarteari egun zoragarri honengatik!





# Eskolabarriko batzordeetako hauteskundeak



Bi urtetik behin eta, aspaldi egiten den bezala, pasa den urriaren 6an, Eskolabarrin hauteskundeak ospatu ziren, Ingeles, Ingurumen eta Euskara Batzordeetako kideak aukeratzeko. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako ikasleek parte hartu zuten ekintza horretan, baita kanpaina prestatzen ere (hautagaien aurkezpenak, mitinak, propaganda kartelak, etab). Lanean ia hilabete eman ondoren, botazio eguna heldu zen.

Dena normaltasunez joan zen eta botoen zenbaketa bukatu ondoren, batzordeetako ikasleen ordezkariak nortzuk izango diren ezagutzen ditugu dagoeneko. Zorionak irabazleoi eta beste hautagai guztioi mila esker!

Fernando Aranberri Euskara teknikaria eta Isa Prieto EA21eko teknikaria gurekin egon ziren. Udal teknikarien partaidetza eta laguntza, baita AMPA-IGEko zein English Batzordeko gurasoarena ere, eskertu nahi dugu: Guztion artean posible izan delako honelako ekintza polita eta aberasgarria berriz ere aurrera eramatea.












# Egiten dugu, beraz... bagara

Auzia ez delako euskalduna izan edo ez izan. Kontua ekitea delako, euskaraz hitz egiteari ekitea, hain zuzen.

Izan ere, ezer gutxirako balio izango digu azken 30 urteotan, milaka euskara ikaslek egindako esfortzuari esker, euskararen ezagutzak izandako gorakada nabarmenak, baldin eta ezagutza hori ez bada norbanakoen komunikatzeko ohituretan sustraitzen.

Batetik, erabiltzen ez dena ahaztu egiten delako eta, bestetik, ahora eramaten ez den hizkuntza, izatez, ez delako ezer. Hizkuntza komunikaziorako tresna delako, ez museoko apalean pausatzen den arte-irudi edo figura.

Beraz, kontua ez da ikastea eta kitto, edota jakitea eta listo. Kontua da dakigun neurrian erabiltzea, dakigun hori erabiliz ahaldunduko baitugu euskara, zabalduko eta ezagutaraziko.

Esatea, baina, egitea baino errazagoa da. Eta, gainera, zailtasun maila, euskarari ekiteko orduan, ezberdina da hitz egiteko erraztasun edo jarioaren arabera.

Horrexegatik, Ermuko eta Mallabiko Berbalagun egitasmoan aritzen garen denak batu nahi ditugu, erraztasuna dutenak eta hitz egiteko zailtasunak dituztenak, elkar ezagutu dezaten, elkarri lagundu diezaioten, sor ditzaten euskarazko harremanak eta ohiturak.

Euskaraz aritzeko guneak sortu nahi ditugu. Hortaz, aukerak eman, aukeratu behar hori eman ez dadin. Hemen euskaraz, bai, baina era abegikorrean, inor baztertu barik, bakoitzak bere neurrian edota eran, bata bestearengandik ikasteko prest.

> “Hizkuntza komunikaziorako tresna da, ez museoko apalean pausatzen den arte-irudia”



Juanmi Bravo

*Ermuko eta Mallabiko praktika egitasmoen arduraduna*

Saiakera horrek, uztailera arte dauden asteazken guztietan ere izango du isla. Asteazkenero, 17:00etatik 18:00etara, Ermuko hainbat eta hainbat guraso euren seme-alabekin batera, euskara plazaratzeko prest egongo delako.

Zu ere ekiteko prest bazaude, ez izan zalantza, nagi edo lotsarik. Etorri plazara eta izan zaitez Gurasolagun.

Hizkuntza erabiltzen duenarena delako, etorri, parte hartu, eman eta hartu, partekatu eta gozatu, azken batean euskararentzako eremuak eta aukerak... sortu!













Urriaren 28an
Zorionak Eder zure 2. urtebetetzean! Musu handi bat aita eta amaren partez, eta musu potolo bat Izaroren partez.



Azaroaren 12an
Zorionak Xabat!! 7 urteko mutil koxkorra! Primeran pasa eta segi horren alai eta jator!!! Aitatxo, amatxo eta familia.



Azaroaren 5ean
Zorionak Naia zure 7. urtebetetzean. Oso ondo pasatu eguna eta musu asko etxeko guztion partez.



Azaroaren 8an
Zorionak Danel! Segi horrela! Musu handi bat familiaren partez.



Naroa (urriaren 16an) eta Amets (azaroaren 2an)
Zorionak bikote! Muxu handi bana familiaren partez, txintxo ibili eta horrela segi!



Amama Miren (abenduaren 2an) eta Ibai (abenduaren 8an)!
Zorionak amama Miren eta Ibai!! Musu potolo bat etxekoen partez.



Abenduaren 13an
Zorionak Kirmen etxekoen partez.



Abenduaren 11n
Zorionak Urko familia guztiaren partez. Musu handi bat txapeldun! Asko maite zaitugu.



Abenduaren 10ean
Zorionak Uxue familia osoaren partez eta musu handi bat.



Azaroaren 18an
Zorionak Ander zure lehenengo urtebetetzean aita eta amatxoren partez.



Abenduaren 4an
Zorionak Aitzol musu handi bat Jone, aita eta amaren partez. Aupa txapeldun!!



Zorionak Miguel (abenduaren 4an) eta Irati (abenduaren 12an)
Musu handi bat Eider eta amaren partez eta ondo pasa zuen eguna.

**Hurrengo zenbakirako azken eguna:**

**ABENDUAREN 11**















## MALLABIA 1989



1989. urtean egin zen Mallabin lehenengo Mallabiko Ardi Txakur Txapelketa, eta parte hartu ondoren atera zen argazki hau Trabakun.

Argazkian agertzen dira: Juan Mari Urkiola, Miren Urkiola eta Maria Jesus Aranberri Muniosgurengoak, Martin Ibaibarriga Aurteingoa, eta Pako Antxia Longa Etxebarrikoa.

## ERMUA 1970



Eusebio Goiogana ‘Montelion’ koltxoien somierren muelle-konpontzailea zen. Somierra, egurrezko egitura bat, artilezko koltxoiaren azpian ipintzen zen. Oihal urdin batek estaltzen zuen hori egiturahori eta haren barruko muelleak, puntatik puntara gurutzatzen zituzten soken bidez lotuta zeudenak. Eusebiok etxe azpiko patioan konpontzen zituen apurtutako sokak: oihal urdina eta azpiko zuria kendu, garbitu ondo-ondo, sokak lotu, oihalak iltzatu barriro... Jesus semeak lagundu zion egun horretan. Lucia Mugaguren emaztea zen koltxoien kargua zuena: barruko artilea zorrotik atera, zabal-zabal ipini izara baten gainean, makila batekin astindu harro-harro eta xamur lagatzeko, josi orratz luze batekin…

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

san pelayo
clínica dental hortz klinika
San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)
Olatz Garcia Arregui
943 17 04 04

Pub SCORPIO
Zubiaurre, 21
ERMUA

**Badatoz Gabonak, edo hala diote behintzat kaleak apaintzen dituzten argi distiratsuek. Hainbat etxetan ere, hasita daude Gabonetako zenbait erosketa planifikatzen. Izan ere, aurretik erosita, azken orduko prezio igoerak ekidin daitezkeela diote.**

**Gabonetako janaria aurretik erosten duzu? Aurretik erosita aurrezten dela uste duzu?**



Ez, ez ditut erosketak aurreratzen. Urtero saiatzen naiz, baina azken momentuan ibiltzen naiz beti. Guztioi pasatzen zaigula esango nuke. Bestalde, ez dut uste iragartzen duten aurrezte hori erreala denik, buruan sartu nahi diguten zerbait da.

**Gloria Cazorla, 54 urte**



Ez naiz saiatzen aurreratzen. Zorionez maila ekonomiko erdi altua daukagu etxean eta ez dugu horren beharrik. Egia da langostinoak aurretik erosten ditugula eta okela amak ekartzen duela Galiziatik aurretik. Gainontzeko gauzak egunean erosten ditugu, baina jakin badakit prezioak igo egiten direla.

**Aitor Begoña, 44 urte**



Ni saiatzen naiz bai janaria eta bai opariak aurretik erosten. Gauza guztiekin ez badut lortzen ere, ahal dudana aurreratzen dut. Lehenago erosita aurreztu dezakezula argi dago, prezioak igo egiten baitira Gabonak hurbiltzen diren heinean.

**Marian Amesti, 46 urte**



Gabonak baino astebete lehenago edo egun berean erosten dira jatekoak gure etxean. Badakit aurretik erosita dirua aurreztu daitekeela, bai, baina ez daukagu erosketak aurreratzeko ohiturarik. Arraina eta okela, adibidez, egunekoa izatea nahiago dugu, freskoa, izoztu beharrean.

**Julen Rodríguez, 26 urte**

**Tasio eta Sabino**




- Eguneroko erosketarekin nahikoa ez, eta orain hau!!
- Orga txiki batekin moldatuko gara, e!!

## ZINEA

**5etik 7ra**
**2tik 14ra**
**19tik 21era**
**26tik 28ra**
*Zehaztu gabeko filmeak. Ermua Antzokian. Hainbat ordutegi.*

## ZINE-KLUBA

**Hilak 3**
**Hilak 10**
**Hilak 17**
*Zehaztu gabeko filmeak. 20:30ean. Ermua Antzokian.*

## UMEENTZAKO ZINEA

**Hilak 6**
**Hilak 13**
**Hilak 20**
**Hilak 27**
*Zehaztu gabeko filmeak. 20:30ean. Ermua Antzokian.*

## ANTZERKIA

**Hilak 4:**
*"Una casa de muñecas", La cocina konpainiaren eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€*

**Hilak 11:**
*"La plaza del diamante", Lolita Floresen eskutik. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 15€*

## ERAKUSKETAK

**Hilaren 1etik 13ra:**
*Margoa: Vicente Iriondoren lanak. Lobiano Kultur Gunean. 18:00etatik 20:00etara.*

**Hilaren 1etik 6ra:**
*"Kurdistan: Mendiak dira gure lagun bakarrak". Udal Liburutegian.*

**Hilaren 14tik 19ra:**
*Gabonetako mahai apaindurak. Lobiano Kultur Gunean. 18:00etatik 20:00etara.*

## UMEENTZAKO EKITALDIAK

**Hilak 3:**
*Haurrentzako jolasak (Euskararen Eguna). 16:30etan. Orbe Kardinalaren plazan.*

**Hilak 19:**
*Haurrentzako ekitaldiak. 17:00etan. Plazan.*

**Hilak 24:**
*Olentzero txiki. 11:00etan. Plazan.*

*"Gabon Kantak Plazara", 21:00etan Patxi plazan.*

**Hilaren 26tik 4ra:**
*Gabonetako haur parkea. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Sarrera: 2€*

**Hilak 26:**
*Haurrentzako pailazoen ikuskizuna: Poxpolo eta konpainia. 17:00etan. Antzokian. Sarrera: 4€*

**Hilak 29:**
*Haurrentzako antzerkia: "3 txerritxoak", Glu Glu Produkzioen eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€*

**Hilak 31:**
*Olentzeroaren harrera. 18:00etan plazan.*

## MUSIKA

**Hilak 18:**
*Danza invisible. 22:15ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 12€*

**Hilak 19:**
*Blues kontzertua: Dixie Town. 20:00etan. Lobiano Kultur gunean. Sarrera: 8€*

## BESTELAKOAK

**Hilak 12:**
*Gazte nahaste: gazteentzako hainbat ekitaldi. 16:00etatik aurrera. Merkatu plazan eta Orbe kardenalaren plazan.*

**Hilaren 12tik 14ra:**
*Gaztela-La Mantxako Kultur jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Gaztela- La Mantxako zentroan.*

**Hilak 18:**
*Laburmetraien lehiaketaren emanaldia. 20:00etan. Antonio Deunaren baselizan.*

Patxi López


TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

PRO

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK
ESKAINTZA BEREZIA OSTIRALERO
Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com


ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com


MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA
EROSKI online
zurekin
EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.
eroski.es
lurraldearen
%100-era
iristen gara




**8 urte zugandik hurbil.**
**Eskerrik asko zure konfiantzagatik!**




**Baldespinako markesa 16, behea**
**Denda: 692 67 42 98 - Manu 667 61 87 11**